

## Gizaki libreak

**L**rakurle guztiek Perez Hilton nor den ezagutuko duzuen ez naiz azalpenetan luzatuko. Egunotan berripaperetara itzuli da, honako goiburua eraginda: «Perez Hilton, semea gay izatea nahi ez duen gaya». Ematen du zertan hausnartu. Salaketa izan zitekeen (baina, spoiler, tipoa ergel hutsa da). Berak



**JIRA**  
Angel Erro

sufritutakoa, gizarteak berari pasarazitakoa, seme-alabentzat nahi ez izateak logikoa irudi lezake. Normalizazio bidean oraindik egiteko asko dagoela onartzeko modua ere izan zitekeen. Dirudun familia txuri mende-

baldar batean sufrikarioa baldin bada, pentsa zer izanen da munduaren zati handiarentzat. Dena den, niri mingarria zait gay batek horrelakorik esatea. Nortasun sexualaren harrotasunak kontrakoa zuritu balezake ere, semea homosexuala izateko desira ere ez litzateke dotoregia. Seme-alaben garapen askeak, presiorik gabek, behar du edozein gurasoren bide orria. Egunotan Frantzia zabaldu dira gurasoek *La manif pour tous* homofobora joanarazitako nerabe gay baten adierazpenak, «umeen onberraz» deitutako manifestazioak zenbat kalte eragin zion umetan.

Ez bakarrik sexualtasunari dagokionez, kontu guztietan saiatu beharko genuke haurrak eta nerabeak gizaki libre eta ezezaguntzat tratatzen, inora bideratu gabe.

## Botoiak

**B**eharbada gertatuko zitzazun zeuri ere noizbait: igande batean, halako edo bestelako jatetxetan, familia bazkari bat eduki eta ondoko mahaiaren ezagunen bat suertatzea sendiarekin egon hura ere. Demagun lanetik, militantziatik edo parrandatik ezagutzen duzula, ingurukoei burujabetzari buruzko *speech* magistralk bat sartzen jantzun zenuela azkeneko eta bat-batean amak diotsona aditzen duzula: «bihar etxera



**BIRA**  
Miren Amuriza

etorriko zara bazkaltzera, ala tupperra jarriko dizut, *kariño?*». Demagun bestela, daukazun haren azken irudia taburete baten gainera igota dantzan ari zutenok dela eta hantxe, jantoki txokoen, aitariari paga eskatzen harra-patzen duzula edo, are, barruko arropak oparitzen dizkiola amamak eta, adibidez, subjektorea jertsearen gainetik probarazten diola. Eta, zure presentziak jabetuta, lotsatu egiten dela.

Edo alderantziz: pentsa zeu zarea etxekoekin eta handik kanporakoekin oso rol diferentek jokatzeko dituela sentitzen duena eta estu samar nabari dituzula batean edo bestean darabilzun soinekoaren josturak. Froga egin zenezake eta Aitariari *zorionak zuri* kantatu ondoren aulkigaitnera dantzan igo, edo gurasoenok tupperra besapean da agertu lanera, asanbladara. Edo ez, jarrai zenezake berdin-berdin harik eta soinekoaren papareko botoiren batek part! salto egin arte. Lehenago edo geroago, beti egiten du salto botoiren batek.

# Matxinada delitua

**Jon Mirena Landa**  
EHU-ko Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Katedraren zuzendaria

**S**en onari jarraikiz, Puigdemont kasua inoiz ez zen bide juridiko-penaletik eraman behar. Zoritxarrez, horra eraman dute, eta egoera ankertu egin da, 155. artikulua esku-hartzea ia bigarren mailan geratzeraino. Eskatzen diren zigor penalak kontuan harturik eta Puigdemont Alemanian atxilotua izan ondoren, indarkeria gako bilakatu ari da. Indarkeria, ordea, ez da mundu juridikoaren kontzeptu esklusiboa eta modu askotara interpretatu daiteke. Baina delitu-zati bat dena mundu juridikoa sartzen gara, eta zuzenbide penalar ari bagara, «indarkeriak» oso esanahi zehatza eduki dezake, argitzea komeni dena.

Indarkeria kontzeptua, zuzenbide penalean, «zatitan» moztzen dugu, izan ere, kontzeptu horren barruan gauza oso desberdinak kabitzen dira. Pentsa dezagun, esaterako, lapurretan. Indarkeriarik ez badago horri deitzen diogu ebasketa eta zigor ari-narekin debekatzen da. Besteen ondare-zatiak, ordea, indarkeriaz hartzen badira, orduan lapurreta dugu eta zigorra handiagoa da. Baina hor ez da kontua bukatzen. Lapurreta barruan mailak daude: gauzetan indarra (indarkeria mota zabal bat dena) besterik ez badago (adibidez, gauza bat hartzeko leiho bat apurtzen badugu lehenago) zigorra baxua izan daiteke, benetan larria den lapurretarekin konparatuta: alegia, pertsonenganako indarkeria fisiko edota larderia (hots: pertsonenganako izua, intimidazioa) dagoen lapurretarekin. Azken honetan zigorrak askoz handiagoak dira. Aipatutako delitu horietan, guztietan, ondasun juridiko berbera babesten da: ondarea. Baina eraso gautzeko eraren arabera, zigorra eta delituen zentzua erabat alda daitezke. *Deskuideroak*, esaterako, aukeraz baliatzen dena karterak hartzeko, ez du zerikusirik labana bat lepoan jartzen dizun gaizkilearekin edota dirua hartzeko zuzenean jo egiten dizunarekin: horren irudi historikoa bide-lapurrarena dugu, indarkeriari zentzu hertsian ekiteko prest dagoena. Az-

ken honek bai zigor handiak merezi dituela. Hortaz indarkeria asko egon daitezke, eta larriena fisikoa dugu.

Ekin diezaiogun orain matxinada delituari. Teknikoki delitu mota honi penalistok asaldatzea deitzen diogu, matxinadaren mailarik gorena, larriena, dakarrena, horren bigarren mailan albaramentua (sedizioa), «asaldatze arina» ere deitua, gertatu ko delarik.

Zigor kodearen 472. artikulua arabera asaldatzea zera da: jendeurrean indarkeria erabiliz altxatzea, helburu jakin batzuekin (horien artean, nazio-lurraldearen zati batean independentzia aldarrikatzea). Konstituzio delituen aurka Kodean deskribatzen den lehenengo jardura da, horrek duen larritasunaren adierazgarri.

Delitu honen zigorrari begiratzea besterik ez dago (30 urte artekoa), indarkeria kasu honetan modu zabalean interpretatu ezin dela ondorioztatzen, lapurretan ikusi dugun bezala, indarkeria-mailarik gorena halabeharrez eskatuko delarik.

Aipatu lehenengo argudioz gain, asaldatzea ez da indarkeria, baizik eta indarkeriaz «alxtatzea» jende aurrean. Historikoki, armada, militarrik, izan dira alxtatu direnak eta horietan pentsatzen egin zen delitu honen deskribapena legegileen aldetik. Armada baten kasuan «larderia», indarkeriaren mehatxua, argi eta garbia izan daiteke, tirorik emango ez balute ere, matxinatu direnean, Espainian gehienetan odoltsua izan bada ere. Irudi honetatik –gudaroste bat alxtatzen– Auzitegi Gorenaren instrukzio-epaileak, Llarrena jaunak, «analogia», konparaketa bat egin du, Puigdemontek eta bere gobernua, baita independentziarako alderdi politikoko zein gizarte-mugimenduek egin dutenarekin analogia hain zuzen ere. Baina hauteskundeak irabazi dituen gobernu batek, «legea ez errespetatu arren», indarkeriarako deitzen ez badu espreski edota indarkeria modu argian erabiltzen ez badu bere agindu zuzenekoaz, ezin da armada batekin parekatu. Institutuzio zibil oso baten (Generalitatea, kasurako) koarkzio-boterea, hau da, gobernu autonomiko bat boterean egoteagatik duen indarren monopoli abstraktoa, ez da armada batena, berez, indarkeria erabiltzeko dena.

Gorenaren epaileak, nire iritzi apa-lean, armada eta Generalitatea edota

independentziaren mugimendua parekatzerakoan analogia erruztatua- ren aurka modu ez-zilegian egiten ari da: *analogia in malam partem* deitzen duguna eta zuzenbide penalean debekatutako dagoena, legezkotasun-printzipoaren aurka jotzen duelako.

Aurreko argudiootara beste bat gehitu beharra dago. Ez dagoen asaldatzea balezake ere, frogatu beharko litzateke pertsona zehatzekin loturik. Puigdemonti delitu hori leporatzen badiotu, ez da nahikoa zera esatearekin: indarkeria jazotzen ari dela, independentziaren aldeko prozesuan. Ezin da delitu larri hau «nahi gabe» egin.

Zuzenbide penaleko beste printzipioa, goi mailakoa, erruduntasunarena dugu: delitu larriak doloz egin behar dira. Hau da, jakitun eta nahita. Ez «arrisku bat» hartzen, asmo argi eta garbiaz baizik. Puigdemontek jakitun eta nahita indarkeria erabili al du? Indarkeriarako deia egin al du?

Kontrakoa. Berak eta bere gobernuak; bere alde egon diren alderdiek; inguruan duten gizarte-mugimenduek, guztiek, indarkeriaren aurka jo dute argi eta garbi, behin eta berriro. Noski, hori egin arren, ezin da milioika pertsona dauden herri batean, gutxi batzuk batzuetan indarkeria-ekin-tza isolatuak egitea saihestu. Baina horiek ez dute prozesu osoa pozoin-tzen, behintzat ez zuzenbide penalean ondorioetarako. Besteek modu isolatuan egindako indarkeria-ekin-tzak ezin dakizkioke Puigdemonti edo bestelako buruzagiei besterik gabe egotzi.

Labur esanda. Ez dago indarkeriarik. Ez, behintzat, bere maila gorenean asaldatze bat osatzeko. Gainera, Generalitatea eta independentziarako mugimendu demokratikoa ez da armada bat eta are gutxiago alxtatzen ari dena, besteenganako indarkeria erabiliz. Eta, hala balitz, orduan bilatu eta frogatu beharko litzateke, esaterako, Puigdemontek berak hori guztia «doloz» bultzatu duela, modu argian: berak erabili eta bultzatu duela indarkeria, delitu egiteko.

Zuzenbide penaleko kategoriak (indarkeriaren interpretazio zorrotza, egiletzaren printzipioa, erruduntasun printzipioa, analogiaren debekua, legezkotasun printzipioa...) behartzen ari dira, ez dagoenetik indarkeria atertzeko. Horri zuzenbidearen abusua deitzen zaio, hitz potoloagoak ez erabiltzearen.